

LIBURU aurrerapena >

Azeria eta Lehoia

Horrelakoak aditzeko abaguneak *football* delakoan egin osteko tar-teak izaten ziren. Horietan, iragane-ko loria horiek ez ezik ordutsu-koak ere aipatzen zituzten. Gogo-tsuago eta maizago, lehenago aipatu edo esan behar izango bai-nukeen joko lagunetako gehienak zirela batailaren batean egonak.

Sinisten gaitzena, berriz, Drake-ren diruen kontua izaten zen. Ar-tean ingelesez belarri motz eta mihi motzago, ez nuen uste haiek aipatzen zituzten diruten nume-roak zuzen endegatzten nituenik.

—*Nuestra Señora del Rosario*n berrogeita hamar mila ezkutu egon zituan -zioen batek.

—Sir Francis lapurra dela esan nahi duk, ala? Hoge mila zituan! —beste batek, ukabilak dantzan hasteko prest.

Hala da ze, loria egiazkoak zein handikeria asmatuak ekartzen zi-ren gogora, arratsak ilunera au-rreratu ahala bigarrenak lehenak baino ugariago, ziur. Zeren-eta haietan garagardoz bustitzen bai-kenituen eztarriak, eta elkarren le-poan joz barkamena eskatzen jo-

koaren zelaian batzuk eta bestek, denok denoi, jo izandako ostikoak, ukondokadak, baita ukabilkadak ere. Irabaztea ez zen beste guztiari gor, jokatzen genuen-eta gogor.

Zelan egiten den gurean eskuz eta ukalondoz pilotan, halaxe jo-katzen da han gurea baino pilota askoz handiagoaz, ostikoz eta soi-naz jotzen, zelaian beti aurrera. Ze-lai zati bitan banaturik izaten zen, eta zati bakoitzaren atzeko aldean *goal* zeritzen masta edo taketa luze bi ziren, zutunik. Jokalariok ere alde edo tropel bitan zatituri, zein tropelek bere goala zaindu beha-rra zeukan, ez zedin pilota, edo *balla*, masta bien artean igaro, eta era berean ahalegindu pilota, edo *balla*, kontrarioen masten artean igaro arazten. Hala suertatuz gero, goal bat. Zeinek zenbat *goal*, hura garaile.

Ez zen makala izaten jokoa. Niri hantxe iltzatu zidaten ezizena, *Biscayan*, eta halaxe irakatsi ingele-sez aginduak, madarikazioak eta arneguak zelan esan. Alegia, Zu-biaurren opari nuen liburuan izki-riaturik ez zirenak.

Eta zer ziren jokoaren arauak, egun batean batzuk, hurrengo ba-tean beste batzuk, jokatzeari ekin orduko liskarrak beti. Eta jokora-ko multzo bakoitzak izena behar izaten zuelarik, behin baino gehia-gotan egokitu zitzaidan izentzat *Lion* eta beste zerbait zeritzona. Nahiz zela *England's Lion*, nahiz zela *Weymouth's Lion*, nahiz zela huts-hutsik *Lion*.

Halaxe otu zitzaidan. Mutiko morroskoak esan legez Ingalate-rran bazen lehoirik, hala lehorre-an zelan uretan. Eta halaxe endele-gatu nuen zein eratako lehoi bihurtu beharra neukan. Lehorre-takoak zer ziren, edo zer ginen go-goan, ontzi bihurtu ahalko nin-tzen!

Aitor dut artean benetako lehoi-rik ikusi barik nengoela. Haatik, pilotari ostikoka eta aurkari egoki-tzen zitzaizkigunei kolpeka, *Aze-ria eta Lehoia* izkribuan izkiriatu-rik zen piztiaren antz handia bide genuen. Gure kontrakoen lakioak saihesten jakin ez-eta, buru eta bu-lar ekiten genion jokoari, eta hala-xe jausten besteen segadetan. Pilo-



Edorta Jimenez idazleak (Mundaka, Bizkaia, 1953) *Azeria eta Lehoia* nobela (Txalaparta) kaleratuko du datorren astean. *Baleen barbaroa* eta *Sukar ustelaren urtea* nobelekin batera, *Piztien itsasoa* trilogia osatuko du Jimenezen nobela berriak. *Azeria eta Lehoia* nobelako protagonista, Sebastian Zubiletakoa, memoria galdurik, preso iratzarri da Ingalaterrako Weymouth pareko lurmuturrean. Bertatik alde egiteko, Machiavellik printzeari aholkatu zion moduan jokatu beharko du, alegia, azeri eta lehoi, biak aldi berean izanez.

ta galtzearen hurrengoa biraoak izaten ziren; horren hurrengoa, ostikadak; hurrengo horren hurrengoa, ukabilkadak; inoizko batean haginkadak izan ziren, bai eta la-banak airean ere. Irainak, laidozko hitzak, ama-aiten aitametak, ha-lakoak, beti. Antza zenez, halako-xeengatik ziotan Luzienek joko-an parte ez izateko. Haatik, bost niri aholkuak.

Jokoaren arauak jabetu ahala le-hoi ez ezik azeri ere izaten ikasi be-har zela oharturik, pilota jokoko lagun egokiari airez helarazten ikasi nuen, eta hartantxe trebatu. Bada, gutariko inork ez zuten joko modu hori erabil ziezaiten baino gorrotagarriagorik. Norbaitek pi-lota kontrarioen gibelera goitik jaurtiz gero ez zeukaten haiek as-akorik egiterik, amorratzea izan ezik. Bada, behin bati pilota halaxe jokatu niolarik, eta gutariko beste batek *goal* deritzona erdietsi, «*Spaniard!*» eta beste zerbait umi-liagarri esan zidan kontrario hark, amorraren amorruz.

Liskarra izan genuen, hitzenga-tik barik haren esateko moduaga-tik. Paparretik eutsi nion eta, hara, etxean morroi egiten zutene-takoa zen. Oinak jantzi zizkidan berbera, alajaina. Horatio zeritzo-ten.

Bada, harrezkero irain bihurtu zuten niri hala iriztea; *Spaniard*. Haatik, ez huts-hutsik berba hori erabiliz. Nahiz zela horren aurre-tik, nahiz zela atzetik, beste berba-ren bat izaten zen beti. Ez nuke esango Agirrek opari egina zidan liburuan halakorik denik. Ama-ren kantuko haren arpoiarekin ze-rikusia bide zeukan zerbait esan ohi zidaten, hala eta ere, *ball* aipa-tzean eskuak nora eroaten zituz-ten gogoan.

Ez omen neukan halakorik, nik, *Spaniard* zikin papistak. Ezizenak betiko menderatuko ninduela etsi nuen. Harik eta beste behin ozen aditu zen arte.

—*Biscayan!*

John zen, itxuraz sendaturik, baina inoiz baino gizenago.

Jokorako prest zetorren, alafe-de. Galtzak baitzituen laburrak, hango beste inork ez bezala, aito-nen seme ez ginenok galtza luzeak bilduta jokatzen baikenuen. Abe-ratsa izatea zen den, gero. Zeren eta jantzietan ez ezik jokoan ere igarri ahal baitzen haren etxearen itzala. Gaixoa ez zen pilotari osti-koz ganoraz jotzeko, eta hala eta ere pilota berari eman guztiek.

—*Biscayan!* —deiadar egiten zuen halako guztietan, eta ia beti huts. Haatik, ezizena iltzatu zidan. *Biscayan* nintzen.

Jokoak, atseginez betetzeaz gai-nera, lehoi eta azeri izan beharra neukala erakutsi zidan. Eta biak batera izatea baneukala. Zelaian, behintzat. Egun hartako gauean jazo zenak, berriz, zelaitik at lehoi beharbada ezin izango nuela bai-na, azeri jardun, denean jardun be-har nuela erakutsi zidan.



MENT